



ACTIVA LA ESCUCHA

ENTZUTEAREN KONTSEILUAREN ADIERAZPENA

Gure ikastetxeetako eta elkarteko bitartekaritza-taldeetako neska-mutilak gara, eta desgaitasuna duten pertsonak ere ordezkatzan ditugu, gizartean sartuta egon daitezen, denak baikara garrantzitsuak. Entzutearen Kluben parte gara denok, eta entzuten ez dituztela sentitzen duten neska-mutil guztiak ordezkatu nahi ditugu.

Gure leloen bidez, honako hau aldarrikatzen dugu:

Hitz egitea, entzutea, hausnartzea eta hobetzea. Uste dugu garrantzitsua dela ondo entzuten jakitea, baina ez entzutea bakarrik. Garrantzitsua da, halaber, hausnartzea eta jardutea. Batzuetan ez zaie behar beste entzuten haur, nerabe edo gazteei, «txikiak» garelako bakarrik. Eta gure arazoak beste arazo batzuk bezain garrantzitsuak dira. Adibidez, gure ikastetxeren batean ziberjazarpen-arazoak ere izan dira, eta hitz eginez, entzunez eta hobetuz konpondu ditugu. Gustatuko litzaiyuke haurrak beren kabuz gaizki dauden gauzez jabetzea.

Zer dago etiketa horren atzean? Moldeak hausten ditugu, estereotipoak hausten ditugu. Uste dugu ikastetxeetan dauden arazo garrantzitsuenak aurreiritziak direla, ikasleen artekoak, eta familien eta ikasleen artekoak, eta irakasleen eta ikasleen artekoak... Nola konpon ditzakegu? Proposatzen dugu astean ordubetez ikasgaiak ez lantzea eta ikasleek eta errealitate desberdinetatik datozen pertsonak elkarrekin hitz egiteko astia izatea. Noiz izan daiteke asteko ordubete hori? Erkidego batzuetan, ez dago tutoretzarik Lehen Hezkuntzan, eta hori arrazoi ona izan daiteke hura jartzeko; izan ere, txikitatik hezten bazaituzte, gero, estereotipo horiek zuzendu ditzakezu. Beste aukera bat da goizetan batzarrak egitea edo ordubete hori aniztasuna ezagutzeko jolasetarako edo dinamiketarako erabiltzea, edo errealitate edo ezaugarri desberdinak dituzten pertsonekin lan egiten duten fundazioekin solasaldiak egitea.

Beraz, aldarrikatzen dugu **hezkuntza ez dela jakitea nakarrik: bizikidetz, berdintasuna eta aniztasuna da. Hezkuntza zu zara.** Desgaitasunen bat dugunok gizartean sartuta egon nahi dugu. Gure ustez, arbuioa eta diskriminazioa daude, eta etiketak jarrita eramaten ditugu bizitza osoan. Horregatik, ikastetxe eta institutuetan hitzaldiak egitea proposatzen dugu, gure eskubideak eskatzeko eta pertsonak sentsibilizatzeke.

Ondorioz, uste dugu aniztasuna ezagutzea eta baloratzea garrantzitsua dela, horrek handi egiten gaituelako. Gainera, uste dugu oso lagungarria izango litzatekeela gizarteratzeko irakasle edo teknikari gehiago izatea eta aniztasunari buruzko balioei buruzko hitzaldi gehiago egitea. Hausnar dezagun, denok gara zu.

Orain zuen txanda da!

Ikusten duzuna baino zerbait gehiago gara

Nicky, Sergio, Ariadna, Violeta, Belén, Carlos, Isabel, Pablo, Emma, Iván

Bartzelonako Jacint Verdaguer ikastetxea, Sevillako AVAIN elkartea eta Palentziako Santo Domingo de Guzmán ikastetxea ordezkatzuz.

